

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroa (Basauri)****Aldi baterako enplegua egonkortzeko Enplegu Publikoaren Eskaintza aldatzea**

Presidente andreak, 2022ko maiatzaren 18an, Ebazpena onartu du, eta honako hau xedatzen du ebazpen-zatian:

Lehenengoa

Etxe Maitia - Autonomia Pertsonalerako Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroa erakunde autonomoaren Enplegu Publikoaren Eskaintza Publikoa onartzea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako egonkortze-prozesuak artikulatzen dituena.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko uz-tailaren 6ko 14/2021 Errege Lege Dekretuaren babesean eskainitako plazak (2021eko abenduaren 31ko 251. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak) nahiz 20/2021 Legearen babesean eskaini beharrekotzat jo direnak barne hartzen ditu, honako xehetasun hauen arabera:

Kodea	Lanpostuaren izena	Azpitaldea	Plaza kopurua	H.E.
2.1.	Administratzailea	A2	1	3
2.2.	Zuzendaritzako laguntzailea	A.P.	1	2
3.1.	Erizaina	A2	1	3
4.3.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	3
4.9.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.10.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.12.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.13.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2 (behin-behineko esleipena)
4.14.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2 (behin-behineko esleipena)
5.2.	Atezaina	A.P.	1	1
7.1.	Sukaldeko laguntzailea	A.P.	1	1
8.1.	Mihiseriako laguntzailea	A.P.	1	1
8.2.	Mihiseriako laguntzailea	A.P.	1	1

Bigarrena

Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena

Hartutako ebazpena langileen ordezkariari helaraztea.

Basaurin, 2022ko maiatzaren 18a.—Kontseilu Errektoreko lehendakaria, María Larinaga Artetxe